



## GAZTETXEKO DIZIPLINA-NEURRIEI ETA ZEHAPENEI BURUZKO ARAUDIA ONARTZEA

..... jaunak/andreak,  
.....NAN zenbakia duenak, Gaztetxokoaren araudian jasotako diziplina-neurriak eta zehapenak onartzen ditut,.....(gaztearen izena) guraso/tutore naizen aldetik. Hauek dira neurri horiek:

Olaztin, 2022ko irailaren.....(e) an.  
Sinadura:

### DIZIPLINA-NEURRIAK ETA ZEHAPENAK

Beharrezkoa denean, Olaztiko Gaztetxokoko begirale eta koordinatzaileek berehalako neurriak hartu ahal izango dituzte.

**1- Hutsegite arinak:** *Honako jokabide hauek hartuko dira hutsegite arintzat:* a- Gaztetxokora noizean behin bertaratzen diren gazteak errespeturik gabe tratatzea.

b- Instalazioa eta materiala behar bezala ez zaintzea. Gainerako erabiltzaileei traba egin eta materialean nahiz altzarietan kalteak eragiten dituzten edo eragin ditzaketen jarduera eta portaera desagokiak, hain zuzen ere, honako hauek:

- \* Ping-pongeko palak kolpekatzea, eta pilotak zanpatzea.
- \* Mahai eta jokoen gainean esertzea.
- \* Txikleak altzarietan itsastea, gozokien paperak lurrera botatzea edo jostailu-kutxetan ezkutatzea.
- \* Materialak aurreikusita dauden helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzea.
- \* Hormetan, zoruan eta materialetan arrastoak eta marrazkiak egitea.
- \* Instalazioa garbi eta ordenatua ez mantentzea.

c- Materialak hartzea begiraleen baimenik gabe.

d- Korrika egitea eta garrasi egitea modu zaratatsuan eta nahita, bertaratutakoen arreta modu negatiboan eta larderiatsuan erakarriz.

e- Arduradunen jarraibideak ez betetzea.

f- Objektuak airera botatzea.

Hutsegite arinek honako zehapen hauetako bat ekarriko dute, kasuaren arabera: gaztea egiten ari den jardueratik aldi baterako kanporatzea, bere jarrera aldatzeko eta materialak jatorrizko egoerara itzultzeko ohartaraztea, edo, bestela, hondatutako materialak ordezkatzeko

beste batzuk erosaraztea. Egun berean 2 hutsegite arin eginez gero, inplikaturako pertsonak kanporatuko dira.

**2- Hutsegite larriak:** Hutsegite larriak: Hutsegite larriek berariazko zehapenak dituzte. Hala ere, horrek ez du eragotziko agintari eskudunen aurrean salatzea, hala badagokio. Honako hauek hartzen dira hutsegite larritzat:

a- Pertsonak behin eta berriz ez errespetatzea, eta beste pertsona batzuk eta begiraleak mehatxatzea eta/edo haiei eraso egitea. Horrek gaztetxokotik aldi baterako kanporatzea ekarriko du berekin. Eragindako lesioen larritasunaren arabera, salaketa jarriko da agintarien aurrean.

b- Instalazioa hondatzea, eta gaztetxokoko materiala edo bertan dauden pertsonen gauzak lapurtzea. Materiala birjartzera behartuko dira inplikaturakoak. Akordiorik lortzen ez bada, kanporatuko dira materiala birjarri arte, eta agintariei jakinaraziko zaie. Nahiz eta materiala birjarri, bi hilabetez kanporatuko dira.

c- Alkoholaren edo instalazioen barruan portaera desegokia izatea eragin dezaketen substantzia batzuen eraginpean egotea.

d- Gaztetxokoko edozein arlo, jarduera eta ordutegitan edari alkoholdunak hartzea, erretzea edo substantzia estupefazianteak kontsumitzea. Horrek gaztetxokotik bi hilabetez kanporatzea ekarriko du. Bi hilabetez kanporatuko dira.

e- Berrerortzea: behin betiko kanporatzea eta agintarien aurrean salaketa jartzea ekarriko du, betiere egindako hutsegiteen larritasunaren arabera.